

ABANDONATUTAKO EDO GALDUTAKO ANIMALIAK KUDEATZEKO PROTOKOLOA

Udalen eskumena da abandonatutako edo galdutako animaliak jasotzea eta kudeatzea, hala baitio Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuak.

Protokolo hau aplikatuko da udaletxeek zuzenean kudeatzen dituzten gune zoologikoetan, edo udaletxeekin zerbitzu-prestazioko kontratuak sinatzen dituzten enpresatan edo, hitzarmenak izenpetuz, animaliak babesten eta defendatzen dituzten elkarteetan.

ANIMALIA IDENTIFIKATUAK

Animalia identifikatuak: mikrotxip bat daramate, eta titular baten izenean daude erregistratuta, datu-base autonomiko batean.

Gune zoologikoen erregistroan inskribatuko dira, bat etorriaz Gune Zoologikoei buruzko apirilaren 11ko 81/2006 Dekretuarekin.

Jabeari jakinarazi ondoren haren txakurra jaso eta gorde dutela, hark 7 egun ditu bere txakurra jasotzeko. Hauek dira titularrarekin harremanetan jartzeko bideak:

4. Telefono-deia eginez. Modurik azkarrena da, eta helburua da animalia ahalik eta denbora gutxien egotea harrera-zentroan. Animalia jasotzeko, data eta ordua zehaztuko dira. Animalia ez bada jasotzen ezarritako datan, 2. puntura pasako da.
5. Gutun ziurtatuz komunikatuz, hartu-agiriarekin, edo burofaxez. 7 eguneko epea komunikazioa jasotzen den egunetik hasiko da kontaktzen. Ez bada harremanik lortzen jabearekin, 3. puntura pasako da.
6. Aldizkari edo kazeta ofizialen batean argitaratuz. Argitaratzen den egunetik aurrera zenbatuko da 7 eguneko epea.

Animalia jasotzean, jabeak ordaindu beharko ditu animalia gastuak, kalean jasotzeak eta zentroko egonaldiak sortutakoak.

7 eguneko epea igaro, eta ez bada animalia jasotzen, honela jokatu da:

1. Hirugarren bati lagako zaio. Halakoetan, jabearen izena aldatuko da, animalia pertsona titular berriaren izenean erregistratuz. Titular berria ez badago EAEn errolatuta, animalia baja emango zaio REGIAN, beste komunitate autonomiko batera eraman ahal izateko; oharren atalean, titular berriaren identitatea eta haren posta-kodea jasoko dira.
2. Udaletxea jabetuko da animaliaz. Animalia udaletxearen izenean erregistratuko da. AGT (Arriskutsua gerta daitekeen txakurra) bezala katalogaturiko animalia bada, gune zoologikoko pertsona batek AGTak edukitzeko lizentzia eduki beharko du.
3. Animalia sakrifikatuko da. Animaliak babesteko 6/1993 Legearen eta 101/2004 Dekretuaren arabera, animaliak bakarrik sakrifikatu ahal izango dira osasun edo segurtasun publikoko arrazoietatik, edo arrazoizko ahalegin guztiak egin ondoren jabe pribaturik aurkitu ez, eta ezinezkoa bada auden instalazioetan denbora gehiagoan edukitzea.

Kasu horietan ez ezik, udal administrazioak animalia sakrifikatzea erabaki dezake baldin eta administrazioko zehapen-prozedura baten ondorioz adosten bada arau-haustea eragin duen animalia – txakurren espeziekoa– konfiskatzea. Prozedura judizial bat egonez gero, dagokion jurisdikzio-organo eskudunak dioena aplikatuko da.

Txakur bat abandonatzea arau-hauste oso larritzat joko da, bat etorritz Animaliak babesteko 6/1993 Legearen 27.3b) artikularekin.

ANIMALIA IDENTIFIKATU GABEAK

Animalia identifikatu gabeak: ez daukate mikrotxipik; edo badute, baina ez daude erregistratuta, eta, beraz, ezin da harremanetan jarri haien jabeekin.

Mikrotxipa dutenak gune zoologikoaren erregistroan erregistratuko dira. Ez daukatenei mikrotxip bat jarriko zaie, eta gero gune zoologikoaren erregistroan erregistratuko dira.

Animalia horiek alde egiten badute edo lapurtzen badituzte, berehala erregistratuko dira AIEOn, dagokion udaletxearen izenean, eta animaliaaren fitxan ohar batean jasoko da desagertu egin dela edo lapurtu egin dutela. Lapurtu badute, salaketaren kopia bat aurkeztuko da.

Egoera horretan dauden animalia identifikatu gabeak Interneten iragarriko dira, eskueran dauden atarien bitartez.

Norbaitek animalia bat berea dela erreklamatzeko badu, animaliak eragindako gastuak ordaindu beharko ditu, jasotzeak eta jabeak berreskuratu arteko egonaldiak sortutakoak, baita animalia identifikatzeari dagozkion gastuak ere, bat etorritz indarreko araudiarekin. Horretarako, mikrotxipa AIEOn erregistratuko da, jabearen izenean, eta pasaporte-kartila emango zaio.

Animalia horiek zentroan geratuko dira, 30 egunez gutxienez.

Hogeita hamar egun natural horietan ez badu inork erreklamatzeko, honela jokatu da:

1. Hirugarren bati lagako zaio. Halakoetan, jabearen izena aldatuko da, animalia pertsona titular berriaren izenean erregistratuz. Pertsona hori ez badago EAEn errolatuta, animalia alta emango zaio AIEOn, udaletxearen izenean; balidazioa eskatuko da, posta elektronikoz, eta baja emango zaio beste autonomia erkidego batera doalako.
2. Udaletxeak bereganatuko du animalia. Animalia udaletxearen izenean erregistratuko da. AGT bezala katalogaturiko animalia bada, gune zoologikoko pertsona batek AGTak edukitzeko lizentzia eduki beharko du.
3. Animalia sakrifikatuko da. Animaliak babesteko 6/1993 Legearen eta 101/2004 Dekretuaren arabera, animaliak bakarrik sakrifikatu ahal izango dira osasun edo segurtasun publikoko arrazoiengatik, edo arrazoizko ahalegin guztiak egin ondoren jabe pribaturik aurkitu ez, eta ezinezkoa bada dauden instalazioetan denbora gehiagoan edukitzea.